

Izan dute zer ikusi eta ikasi Boluntariotza Azokara hurbildu diren bergararrek

Amaia Zabala 2019-05-04 14:14



DYA-ko bolondresak desfribiladorea nola erabili irakasten.

Bergarako Udalak eta Sareginez, boluntariotzako entitateen sareak elkarlanean antolatuz Boluntariotza entitateen azoka ospatu dute gaur goizean Bergaran "Eraiki mundu hobeago bat, egin zaitez boluntario" lelopean. Hainbat fundazio eta elkarte batu dira bertan hurbildu diren herritarrei beraien lana ezagutarazi eta boluntario berriak erakartzeko helburuarekin.

Goizeko 11:00etatik 14:00etara, Bergarako Munibe Plazan, izan da entitateen feria eta Sareginez elkartearen barruan dauden hogei entitateetatik gehiengoa bertan izan da.



Caritas, DYA, Haurralde Fundazioa, Nagusilan, Elikagaien Bankua, Katxalin, Ndank-Ndank eta Oscar Romero izan dira informazio puntua ezarri duten entitateetako batzuk eta hurbildu diren herritarrei elkarte hauetan, nola parte hartu dezaketen erakutsi diete.



Ferian informazio gunez gain, gaztetxoek zein helduek ondo pasatzeko helburuarekin, parte hartze librea duten hainbat ekintza programatu dira, Henna tailerra, Idazkera arabiar ailerria, Txapak egiteko tailerra, BBS tailerrak, Photocall feminista hain zuzen.



Eta azoka girotzeko Mendi zaharra Jota taldearen eskutik musika emanaldia ere izan da.